

## ERANSKINA

### 1. ariketarako jarraibideak irakaslearendako

Adierazi ariketa bakoitza bi aldiz irakurriko dela. Arreta eta isiltasuna eskatu, behin irakurri, motel, itxaron bost segundo eta ariketa berriro irakurri.

Kalkulu mentala.

- A. Nire aitatxik 4 oilo, 2 txakur eta 7 kanario ditu. Zenbat animalia ditu, guztira?
- B. Karlosek eskolara 9 kromo eraman ditu. Jolas orduan 5 kromo galdu ditu eta, gero, 2 irabazi. Karlosek zenbat kromo izanen ditu jolasaldiaren bukaeran?
- C. Karlosek album oso bat du, 15 kromorekin. Orri bakoitzean 3 kromo itsasten ditu. Zenbat orri ditu albumak?
- D. Paulok 28 kg pisatzen du eta bere arreba Laurak 5 kg gutxiago. Zenbat kg pisatzen du Laurak?
- E. Taxilari batek aste batean 4000 km egin ditu eta hurrengoan 800 km. Zenbat kilometro egin ditu bi aste horietan?
- F.  $200 + 5000 + 60 = (200+5000 \text{ atseden laburra, gutxi gorabehera bi segundokoa} + 60) =$
- G.  $9 \times 7 = (9 \text{ bider } 7) =$
- H.  $35 : 7 =$
- I.  $90 - 6 =$
- J.  $8 \times 5 - 7 = (8 \times 5 \text{ atseden laburra, gutxi gorabehera bi segundokoa} - 7)$